

BILBOKO, LEIOAKO, GASTEIZKO, HENDAIKO ETA ANTSOINGO UDALEK SUSTATUTAKO KARRIKAN PLATAFORMAK KALEKO ARTE ESZENIKOEN EUSKAL SORKUNTZA BULTZATZEKO LAGUNTZEN SORTA BERRIRAKO DEIALDIA EGIN DU

- **Proposamen artistikoak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 25era arte egongo da zabalik.**
- **Aukeratutako proiektuak laguntza izango du sorkuntzan eta plataformako kideen jaialdietan programatuko dute.**

(Bilbon, 2022ko martxoaren 9an).- Bilboko, Leioako, Gasteizko, Hendaiako eta Antsoaingo (Nafarroa) udalek euren indarrak batu dituzte berriro, Karrikan plataformaren laguntzen bosgarren edizioko deialdia egiteko. **Martxoaren 25era arte (barikua) zabalik egongo den deialdiaren helburua da Euskadiko (Iparraldeko eta Hegoaldeko 7 lurralde historikoetan) kaleko arteetan sorkuntza lanak bultzatzea eta lan horiek Pirineoen alde batean eta bestean garatzea.**

BERTAKO SORKUNTZARI LAGUNTZEA

Aurtengo edizioan, Karrikan plataformaren helburua da konpainia, talde eta artista berrien edota profesional bihurtzeko bidean daudenen sorkuntza originalei laguntzea da. Espazio publikoan jarduten duten Euskadiko artistei zuzenduta dago. Balio berezia emango zaio “kaleko ikuskizuna” kontzeptuari, nahiz eta onartuko diren arte eszenikoen beste diziplina guztiak ere: antzerkia, dantza, zirkua, diziplina anitzeko ikuskizunak, etab. Hala ere, lehentasuna izango dute testurik ez duten edo euskaraz egin diren ikuskizunek. Azkenik, formatu txikiko edo ertaineko ikuskizunak baloratuko dira.

Informazio guztia www.karrikan.eu webgunean dago eskuragarri.

Karrikan plataformako bazkideek aukeratutako proiektua sorkuntza-prozesuan zehar bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, hau da, **sorkuntzarako laguntza ekonomikoa emanaz, sorkuntzarako egoitzak eskainiz, arte, teknika eta administrazio laguntza emanaz –konpainiaren beharren arabera–.**

Gainera, aukeratutako proiektuak hainbat ekitalditan programatuko dira 2023an zehar: Bilboko Kalealdian, Leioako Umore Azokan, Gasteizko KaldeArten, Hendaiako Mai du théâtre jaialdian eta Antsoaingo udako programazioan.

2022ko deialdi horrekin bat egin dute, bazkide laguntzaile gisa, lurretako eta Arrigorriagako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Dantzaguneak. Baliabideen gune horren helburua da dantza-ekimenak sustatzea eta dantzaren arloan lan egiten duten pertsoneri laguntzea.

AURREKO DEIALDIETAN AUKERATUTAKO PROIEKTUAK

Karrikan-en aurreko edizioan honako proiektu hauek aukeratu ziren: **“Edén”**, **Arriera** bilbotar konpainiarena, objektuen antzerkia, musika, dantza eta plastika uztartzen zituena, eta **“Mikra” Berdinki** gipuzkoarrena, zirkuko teknikak, monozikloa, oihalak eta akrobazia, kantuarekin eta ahotsarekin bateratzen zituen ikuskizuna. 17 proposamenen artean aukeratu zituzten, eta euren originaltasuna, gaia, proposamenak egin zituzten taldeak eta proiektuaren bideragarritza hartu ziren kontuan balorazioa egiterakoan.

Karrikan-ek hautatutako beste konpainia batzuk hauek izan dira: **Eva Guerrero** konpainia («**El fin de las cosas**»), **Amaia Elizaran** («**Block**»), **Mystérieuses Coiffures** konpainia («**La leyenda del hombre pájaro**») eta **Eflirkoa Collectif** («**Echo**»).

SARE SOZIALAK:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

www.bilbaokultura.eus

KARRIKAN, PLATAFORMA IMPULSADA POR LOS AYUNTAMIENTOS DE BILBAO, LEIOA, VITORIA-GASTEIZ, HENDAIA Y ANSOAIN, CONVOCA UNA NUEVA BOLSA DE AYUDAS PARA IMPULSAR LA CREACIÓN VASCA DE ARTES ESCÉNICAS DE CALLE

- **El plazo para presentar las propuestas artísticas permanecerá abierto hasta viernes el 25 de marzo de 2022.**
- **El proyecto seleccionado estará acompañado en su creación y programado en los eventos de los socios durante 2023.**

(Bilbao, a 9 de marzo de 2022).- El Ayuntamiento de Bilbao, junto a los Consistorios de y Leioa, Vitoria-Gasteiz, Hendaia y Ansoain (Navarra), vuelven a unir fuerzas para lanzar la **quinta convocatoria de ayudas de la plataforma [Karrikan](#)**. El objetivo de esta nueva convocatoria, **abierta hasta el viernes 25 de marzo, es apoyar la creación en el ámbito de las artes de calle en Euskadi (de los 7 territorios de Iparralde y Hegoalde) y su desarrollo a ambos lados de los Pirineos.**

APOYO A LA CREACIÓN LOCAL

En esta nueva edición, Karrikan apoyará **creaciones originales de colectivos, artistas y compañías emergentes profesionales o en vía de profesionalización, instalados en Euskadi que actúen en el espacio público**. Se dará especial valor a la noción de artes de calle, aunque se aceptarán todas las disciplinas de artes escénicas: teatro, danza, circo, multidisciplinar, etc. Cabe destacar que se dará prioridad a los proyectos sin texto o en euskera. Además, se valorarán los espectáculos de formato pequeño o medio formato. **Toda la información y bases de la convocatoria pueden consultarse en [este enlace](#).**

Los socios de **Karrikan** se comprometen a respaldar el proyecto seleccionado a lo largo del proceso creativo: con **apoyo financiero para la creación, y también proponiendo periodos de residencia creativa, proporcionando apoyo artístico, técnico o administrativo si es necesario, dependiendo de las necesidades de la compañía.**

Además los proyectos seleccionados podrán participar en diferentes eventos a lo largo de 2023: **Festival Bilboko Kalealdia, Umore Azoka de Leioa, KaldeArte de Vitoria-Gasteiz, Mai du théâtre de Hendaia o la programación de verano de Ansoain.**

A esta convocatoria de 2022 se unen también, como socios colaboradores, los **Ayuntamientos de Iurreta y Arrigorriaga**, así como Dantzagunea de la Diputación Foral de Gipuzkoa, espacio de recursos que tiene como objetivo apoyar la promoción de iniciativas de danza y apoyar a las personas que trabajan en el ámbito de la danza.

PROYECTOS SELECCIONADOS EN CONVOCATORIAS PASADAS

Los proyectos elegidos en la pasada edición de Karrikan fueron “**Edén**” de la compañía bilbaina **Arriera**, que combinaba teatro de objetos, música, danza y plástica; y “**Mikra**” de los gipuzkoanos **Berdinki**, un espectáculo que aunaba técnicas circenses, monociclo, telas y acrobacia, con canto y voz. Fueron elegidos entre 17 propuestas presentadas y ambos fueron valorados por su originalidad, la temática, el equipo emergente que los propone y la viabilidad del proyecto.

Otras compañías seleccionadas por Karrikan han sido las compañías **Eva Guerrero** con “**El fin de las cosas**”; **Amaia Elizaran** con “**Block**”; la compañía **Mystérieuses Coiffures** con “**La leyenda del hombre pájaro**”, o **Eflirkoa Collectif** con “**Echo**”.

REDES SOCIALES:

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

www.bilbaokultura.eus